

## Ahozko azalpena

Vesna Vulović miresteko emakumea

Gu, Leire, Nerea eta Ane gara eta ahozko azalpen bat prestatu dugu Vesna Vulović-en bizitzari buruz.

Azalpen honekin, gelakideak informatzea dugu helburu, Vesna Vulović gertatutakoa ezagutzera emateko. Izan ere, oso bizipen gogorra bizi izan zuen emakumea izan zen.

Ondorengo informazioa Wikipediatik atera dugu.

Hegazkin leherketa batetik bizirik atera den munduko pertsona bakarra izan da, eta horregatik bihurtu da erreferente.

Ez al da gertatu zitzaiena sinestezina?

Vesna Vulović 1950eko urtarrilaren 3an jaio zen Belgradon eta 2016ko abenduaren 23an hil zen 66 urterekin. Azafata serbiarra izan zen.

1972ko urtarrilaren 26an, Vesna Vulović zihoan hegazkinean bonba bat lehertu zen eta horren ondorioz hegazkinetik erori zen. Bidaiari guztiak hil ziren, Vesna Vulović izan ezik.

Paraxutik gabe hegazkinetik erori zen, eta horregatik, Guinness errekorra lortu zuen, altuera handienetik bizirik atera zen pertsona bakarra izan zelako.

Erorketa horrek oso lesio larriak eragin zizkion: burezurra, hiru orno, hankak, pelbisa eta saihets-hezurra

hautsi zituen. Horren ondorioz, lesio horiek, gerritik behera aldi baterako paralisia eragin zioten. Hala ere, 27 egun koman egon arren, bizirik jarraitu zuen eta handik urte batzuetara lan bat eskaini zioten eta lanera bueltatu zen.

Anari abeslari azpeitiarrak, Vesna Vulović-i buruzko abesti bat idatzi zuen 2024an.

Heriotzaren atarian egon zen arren, patuak bizirik jarraitzea erabaki zuen. Bigarren bizitza hori 44 urtez bizi izan zuen. Ez zaizue miresteko moduko pertsona iruditzen?

Iturria: (<https://www.wikipedia.org/>)

